*JARAMONIK EZ EGITEKO HURBILEGIA, ESKU HARTU AHAL IZATEKO URRUNEGIA **

TXOMIN BADIOLA. GALERIA CARRERASMUGICA, BILBAO
30-1-2016 —— 24-3-2016

*Parmigianinoren koadroan oinarritutako *Self-Portrait in a Convex Mirror* (Autorretratua ispilu konbexuan) John Ashberyren poematik.

(…) Ba al da zerbait / bestetasun honetaz haratago serio izateko modukoa / eguneroko jardueraren forma guztiz arruntetan datzana / dena aldatzen duena, azalean eta sakonki / sorkuntzako materia suntsituz / edozein sorkuntza delarik, ez bakarrik artistikoa / geure eskuetatik sortzen dena, gertuko gailur munstro batean kokatzeko / ezikusiarena egiteko gertuegi / urrunegi norbaitek bertan eskuhar dezan? / Bestetasun hau, "gu-ez-izate" hau da ispiluan begiratu beharreko guztia / nahiz eta inork ezin dezakeen esan/ nola iritsi zen horrela izatera.

Bukatu berri dudan erakusketa batek sentimendu bera pizten dit beti: azkenekoa izango den intuizioa, neure aldetik gehiago ematerik ez dudala izango, honaino iritsi garela esatekoa. Aspaldi-aspalditik datorren kontua da, hasieratik esango nuke. Ohituta egon beharko nuke, baina hala ere, izu-ikara eraberritutako bizitasunez gertatzen zait aldi bakoitzean. Ustekabeko zerbait bezalakoa da, ezer ziurtatuta ez dagoela erakusten didana, artelan berri batzuk erakusketa batean bildu ahal izatea bera -merezi duten iritzia alde batera utzita- mirari hutsa dela, horretan, niri dagokidanez behintzat, berezkotik ezer ez dagoela.

Lan bakoitza bidaia bat da; ahoberokeria batekin hasten da ("hau nahi dut, eta horren bila noa") eta umiliazio batek jarraitzen dio ezinbestean ("ez dakizu nahi duzunaren arrastorik ere"). Negoziazio-multzo baten ondoren, erantzunetik zerbait duen objektu bat gauzatzen da ("hauxe izango da nik benetan nahi nuena"). Zerbait jausi da (zentzu kimikoan), eta erantzunetik izan dezakeenak, partzialki bada ere, hor egon beharko luke; baina horri buruzkoak galdetzeko hurrengo obra bat beharko da ezinbestean, beste jausialdi batekin. Prozesu horretan irabazten edo galtzen dena lausoa da, ez du kalkulatzerik onartzen, bizitzako aukera bat da nolabait.

Gainditu egiten gaitu guztiak, gure kontrola erlatiboa da, eta aplikatzeko unean bertan denbora errealean senez sumatutako teknikaren bitartez neke handiz gauzatzen denez, ez zaie muzin egin behar egindakoaren gainean itzultzeko egon daitezkeen aukerei. Nire lana inolaz ere autobiografikoa ez bada ere –egiten dudan horretan guztian pizten den bestetasun horri buruzkoa dela esango nuke–, Unamunok bezala nire lanak nire biografia direla esango nuke, bai, eta nire bizi-ibilbidearen irudikatzea eskuratzeko aukera bakarra. Izan ere, bete beharreko eginkizunetako bat horixe dela suma daiteke, Schopenhauerren argudioari jarraiki: existentziako lehenengo 40 urteek testua ematen dute, hurrengo hogeita hamar urteek, iruzkina. Arazoa da nola jarraitu ekoizpen-jardunean artista bera kanpoan uzten duten artelanetatik abiatuta; behin haiek bukatuta, haientzat artista hilda egongo balitz bezala da. Erakusketa hau osatzen duten lanak iruzkin bezala sortu dira, beti ihes egiten duena atzemateko ahaleginean kontu berera itzultzen den galdetze iraunkorraren fase berri bat izango balitz bezala. Hiru hamarkada baino gehixeagotan eginiko lanari derrigor egin beharreko berraztertze-prozesua du ezaugarri aldi honek (bakarka eta beste artista batzuekin batera egindako prozesua da), eta datorren udazkenean Madrilgo Velázquez Jauregian Reina Sofia Museoak antolatuko duen atzera begirako erakusketa izango du ardatz. Erakusketa horretan izango diren artelan-multzoaren baitako arnasaren airean ibiliko dira ibilbide osoan zehar iraun duten gaiak, erreferenteak, prozedurak, irudiak eta intuizioak; ez dute ezer azalduko -ez dira ez intentzio, ezta emaitza ere-, jokoan jartzen dena erakutsiko dute ordea, nork bere burua behin eta berriz galdu eta aurkitzeko adierazleen bilbe osatugabea eta zatikatua.

Bost artelan-multzok osatzen dute erakusketa:

1. FROGA-METATZEA DELA ETA (SASIKUMEA). *Bastardo* -Sasikumea- ideiaren ingurura itzultzen diren lau obrako multzoa da, 80ko hamarkadan eratu eta ondorengo garapenetako askoren jatorritzat hartu den obra-mota. Nolabait paradoxikoa da Bastardo jatorri bihurtu izana, definizioz "sorrerako ezaugarrietatik aldentzen dena edo ezaugarri horiek galtzen doana, jatorria lausotzen duena" baita. *Bastardo* ideiak zerbaiten bila ibiltzearen zentzua jazartzea darama bere baitan, aitaren bila aritzean bezala. Aita jatorria da, baina legea ere bai; zentzua ematen digu, baina, aldi berean, kendu egiten digu, haren agindupetik kanpo ezin izan baita zentzu hori irudikatu. Horri ekiteko bi modu daude: klasikoa, parrizidioa, eta modernoa, zuk zeure aita sorraraztea. Frogak metatzeak ahalmena ematen du hasiera batean eskuraezina edo ulertezina dena eskura jartzen duen kontakizuna antolatzeko. Baina kontaketa hori iruzurrez konpon daiteke, "interpretazio okerra" izan daiteke, nor bere aitaren sorreran kokatzea ahalbidetuko duena, sasikumearen jolasa.



1 *FROGA-METATZEA DELA ETA (SASIKUMEA) 1.*
2009-2015
76 x 45 x 35,5 cm
*Stucco*rekin margotutako zura eraikuntza eta aluminio galdaketa



2 *FROGA-METATZEA DELA ETA (SASIKUMEA) 2*
2009-2015
83 x 58 x 38 cm
*Stucco*rekin margotutako zura eraikuntza eta aluminio galdaketa



3 *FROGA-METATZEA DELA ETA (SASIKUMEA) 3*
2009-2015
75 x 45 x 34 cm
*Stucco*rekin margotutako zura eraikuntza eta aluminio galdaketa





4 *FROGA-METATZEA DELA ETA (SASIKUMEA) 4*
2009-2015
*Stucco*rekin margotutako zura eraikuntza eta aluminio galdaketa
122 x 90 x 30 cm

2. Lau eskultura-instalazio dituena: *ARRAZOIAREN PRAKTIKA BALDINTZAGABEA; NORK AGINTZEN DUEN DA GARRANTZITSUA; LE RADEAU (ZER DA IKUSTEN DUDANA?, ZER DA IKUSTEN EZ DUZUNA?)* eta *CONTRA-GOODVIBES-ERLIEBEA (LET HER PAINT)*. Kantek zioenez, Sapere aude, "ausart zaitez zeure arrazoia erabiltzen", baina, nola jakin dezaket darabildan arrazoia neurea dela eta ez besterena, Bestearena? Alizia Humpty-Dumptyk hitzei berak nahi zituen esanahiak ematen zizkiela kexatu zenean, hauxe erantzun zion Humpty-Dumptyk: "The question is which is to be master – that's all" (Agintaria zein den da kontua – hori da dena"). Géricault da intentzioz egindakoa gainezkatzea eta era guztietako aginduak norberaren praktikatik gainditzea hobeto azaltzen duen artistetako bat. Hasiera batean beste historia-koadro besterik ez zen Le Radeau de la Medus sortu zuenean, prozesu artistiko korapilatsu bat abiarazi zuen, naufragioan bizirik iraun zutenei elkarrizketak eta hiru dimentsioko maketak eginaz, hiltzear zeudenak eta exekutatuen gorpu zatikatuak erakutsiz, beste artista batzuren lankidetza modelo gisa (Delacroixena, besteak beste) eta hurbiltze plastiko ugari burutuz, azkeneko gainezkaldia izan arte. Orduan, azken figura sartu zuen –beheko ertzean burua galtzen duena–, 1819an koadroa jada Parisko Aretoan zintzilikatuta zegoela. Historia-koadroa zena –boterearen fundazio-mitoak berrestera bideratua– adierazpen politiko bihurtu zen, eta balantzaka jarri zuen azkenerako Luis XVIII.aren monarkia berrezarria. Garaiak agintzen zuenaren arabera, Géricaulten lanetako batzuk subjektu transzendentalaren goraipamena izan zitezkeen, erromantikoarena; baina, arteak agindutakoaren arabera, haietako askok gezurtatu egin zituzten ez bakarrik humanismo etnozentrista edo arauemaile batzuk –arraza desberdinetara, eroengana edo delitugileengana hurbiltzean– baita antropozentrismoa bera ere –animalien erretratuekin, hala nola, Ekaitzak izututako zaldia hondartzan txundigarria–. Bada malenkonia puntu bat intentzio eta emaitzen, ideia eta objektuen arteko etengabeko borroka horretan; malenkonia horrek egitura formalak gauzatzeko eta hainbat material formaren arabera antolatzeko era partikularra duenez, elkarrekiko erresistentzia erakusten dute, errotik datorkien irakurtezintasunean irauten dute beti. Norgehiagoka malenkoniatsu horretan, azkenean, idealak eta errealak irudi bat jariatzen dute sarritan-vanitas. Hamlet hilerrian burezurra seinalatuz: "Let her paint an inch thick, to this favor she must come" ("Utzi hazbete lodiz margotzen, honela geldituko da eta").







5 *ARRAZOIAREN PRAKTIKA BALDINTZAGABEA*
2015
Partzialki margotutako zura eraikuntza, altzairu galbanizatua, margotutako altzairuzko profilak, metalezko lanpara eta argazkia
305 x 470 x 350 cm



6 NORK AGINTZEN DUEN DA GARRANTZITSUA
2015
Margotutako zurezko eraikuntza, metala, plastikoa, eta inprimatutako altzairu galbanizatuzko xafla
280 x 280 x 134 cm








7 *LE RADEAU (ZER DA IKUSTEN DUDANA?, ZER DA IKUSTEN EZ DUZUNA?)*
2015
Partzialki margotutako zurezko eraikuntza, altzairu galbanizatua, plexiglas, aluminiozko markoa, inprimatutako materialak eta metalezko aulkia
150 x 261 x 185 cm





8 *CONTRA-GOODVIBES-ERLIEBEA (LET HER PAINT)*
2009-2015
Zura eraikuntza, inprimatutako altzairu galbanizatuzko xafla
245 x 185 x100 cm

3. *MITOLOGIAK. DAGOENEKO DENOK BADAKIGU NORTZUK GAREN* obra antzeko ezaugarriak dituen beste obra batekiko erresonantzian aurkeztu da *(MITOLOGIAK. ATZO HAN ONDOREN BATZUK)*, San Telmo Museoan aldi berean erakutsitakoarekin. Bien osagai dira honakoak: 1. "Hildakoen" ondoan kokatzen dituen irudi-mota baten izaera historikoa. Eskubide osoko historia da, dokumentatua. Ekintza artistikoak antzeratuz politikoki jarduten duten edo ekintza politikoak antzeratuz artistikoki jarduten duten artista talde bati buruz hitz egiten du (GAUR edo EAE). 2. Objektu artistiko-funtzional bat *(Gio Pontiren Parete Organizzata*), baterako existentziako egitura baten baitan bere garaiko artearen estilemak (50eko hamarkadakoak) hainbat eratako elementu "kulturalen" *display* bat osatzeko erabiltzen dituena (liburuak, diskoak, eskulturak, argazkiak eta abar). "Istorioen" ideia, "bizitza-gertaerak" diren heinean, bateratze-zentzurik gabe (euren kultura-aztarnen bitartez irudikaturik), Historiarekin aurrez aurre, non aztarna horiek zentzuaren inperioaren meneko "historiako datu" bihurtzen diren. Erakuslearen eta liburutegiaren arteko sortasuna. 3. Era "negatiboan" (testu zulatua, batzuetan hutsa, besteetan betea) paradoxa bat gogora ekartzen duten hitzak: balio kulturalak suntsitzean sakontzeko unea (artelana edukiaren ideia bera eztabaidatzen duen eta, horrenbestez, zentzua eskaini beharrean etengabe auzitan jartzen duen printzipio sormen-formala), artea eta artisten inguruan gizarte-batasun baten nostalgia gertatzen denekoa da, kultur balioen aldarrikapen anakroniko bat, erresistentzia baten zerbitzura estrategikoki politikoa den mugimendu baten modura. Funtsean hiru zeinu-mota horien elkarren arteko talkarekin eta tartean dauden erreferentzia-eremuen talkarekin inplikatuta agertzen da Historiaren zentzua. Nola gertatzen da bizitza-gertaera batzuek beti bizitzaren ildoan jarraitu eta beste batzuk ,berriz, historiako datu moduan nabarmentzeko prozesua? Horretatik guztitik zein zati dagokio mitifikazio- edo mistifikazio-prozesu bati eta zein interesi erantzuten dio? Kultura eta Arte kontzeptuak ere inplikatuta daude bertan. Kultura gizarte baten zentzuaren paroxismo bezala eta Artea zentzugabekeria gobernatzeko teknika gisa. Arteak zentzua gauzatu al dezake negatiboa ez den era batean, zentzua kenduz, kontrakulturan egonda?





9 *MITOLOGIAK. DAGOENEKO DENOK BADAKIGU NORTZUK GAREN*
2015
Partzialki margotutako zurezko eraikuntza eta aluminiozko xafla inprimatua
160 x 300 x 31 cm

4. SUSMOA (OBJEKTU TXARRA) bi bertsiotan. Arteari dagozkion kontuetan garrantzitsua da objektua beti begi aurrean izatea. Artistak objektuetarantz proiektatzen duen inbertsio emozionalak ezinbesteko agonista bihurtzen ditu haren egoaren aurrean. Barne objektuak eta kanpokoak sortzen dituzten objektuak eta objektu-harremanak. Objektu onak, objektu txarrak, objektu trantsiziokoak, objektu partzialak, a hizki txikiko objektuak. Atxikimendukoak, frustraziokoak edo arbuiatzekoak. Maitasun, gorroto, erosotasun, beldur eta irrikazko objektuak. Errusiar mendiak zerurantz eta infernurantz, objektu nolabait "konstantea" lortu arte, bere funtziotik edo asebetetzeko beharretatik haratago objektua baloratu daitekeen puntua, hain zuzen. Objektuak bere burua "forma onetatik" eta "manera onetatik" haratago sostengatzen dueneko puntua da.



11 *SUSMOA (OBJEKTU TXARRA)*
2014-2015
Margoa paperean eta argazkian
120 x 70 cm (two items 70 x 50 cm each)





12 *SUSMOA (OBJEKTU TXARRA)*
2014-2015
Partzialki margotutako zurezko eraikuntza, paperean inprimatutako irudiak, eta argazkiak
253 x 164 x 37 cm

5. *IDOLATRIAREN DESANTOLAMENDUA* seriea. Aurreko lanetan alboratutako irudiak kartak bezala nahasten dituzten argazki-collageetan eta esku hartutako argazkietan oinarritutako lanen multzoa da. Askotan irudi baten izateko arrazoia oraindik sortu gabeko irudi batean datza, edo sortu bai, baina lehenengoaren alboan inoiz ere egon ez den batean. Godarden nozioaren arabera, bi irudi behar dira irudi bat sortzeko. Irudi bat, beraz, irudi-bitarteko bat izango litzateke beti. Irudiak kartak bezala nahasten dira, haietako biren artean elkarren beharra gertatzerainoko harremana gauzatu arte, irudi berri batez erdituko den bat-bateko maitemin moduko bat.



13
WHO
2015
Margoa eta *collage* argazkian
Hiru elementu, 70 x 50 cm bakoitza



14
HEMEN ITZAL IZENDATZEN DUTEN HORI
2015
Margoa eta *collage* argazkian
Bi elementu, 70 x 50 cm bakoitza



15
LANA
2015
Margoa eta *collage* argazkian
70 x 50 cm



16 *ZENTZUMENEN BANAKETA*
2015
Margoa eta *collage* argazkian
Bi elementu, 70 x 50 cm bakoitza



17
I DECLINE
2015
Margoa eta *collage* argazkian
Hiru elementu, 70 x 50 cm bakoitza